# kultura zarautz agenda

iraila / *septiembre*
abendua / *diciembre*
2023



## ekitaldi mota
tipo de actividad

**literatura**

**bertsolaritza**

**antzerkia** / teatro

**musika**

**haurrentzat** / infantil

**dantza**

**erakusketak** / exposiciones

**zinema** / cine

**magia**

## hizkuntza
idioma

EUS **euskaraz /** en euskera

ES **gaztelaniaz** / en español

**hitzik gabea** / sin texto

## Iraila *Septiembre*

14/21 ***La república era esto***
Alaa Al Aswani
Slawka Grabowskaren gidaritzapean
**18:30 SANZ ENEA -** Tertulia
ES

22 **Amaraun. Irunez Iraun**
Oihana Iguaran eta Amaiur Luluaga
**20:00 MODELO ARETOA**
EUS 6€

28 ***Ibaiertzeko ipuina***
Oihane Amantegi
Nerea Loiolaren gidaritzapean
**18:30 SANZ ENEA -** Tertulia
EUS

29/30/01 **Adarretatik Musika Jaialdia**
6. Edizioa
**MUNOA PLAZA + MUSIKA PLAZA**
doan

## Erakusketak *Exposiciones*

**Sanz Enea**
**Iñigo Ormazabal**
Irailak 24 arte / *Hasta el 24 de septiembre*
doan

**Torre Luzea**
**Iñigo Ormazabal. Marinak**
Irailak 17 arte / *Hasta el 17 de septiembre*
doan

**Torre Luzea**
**Ricar Iriarte**
Irailak 28 - Azaroak 12
*28 de septiembre - 12 de noviembre*
doan

# Urria *Octubre*

05 **Tu-Tum, Platz!**
Txalo Produkzioak
Lamandanga Producciones
**20:00 MODELO ARETOA**
EUS doan

05/19 ***La hija única***
Guadalupe Nettel
Slawka Grabowskaren gidaritzapean
**18:30 SANZ ENEA -** Tertulia
ES

06 **Francisco Escudero Akordeoirako Nazioarteko Konposizio Lehiaketa**
HAUSPOZ. Euskal Herriko Akordeoi elkartea
**20:00 MODELO ARETOA -** Sari banaketa
doan

08 **Crisálida**
Caramuxo Teatro
**16:45 MODELO ARETOA**
4€

18 **Irakurketa txokoa**
Gurasoak ere ipuin kontalari
Miriam Mendoza
**17:30 SANZ ENEA -** Ipuin kontalaria
EUS

19 **Tximili Kuarteka**
Haur irakurle taldea
Gidaria Nerea Loiola
**17:00 SANZ ENEA**
EUS

20 **Greenpiss**
**Un desmadre eco-ilógico**
Yllana
**20:00 MODELO ARETOA**
ES 10€

26 ***Bihurguneko nasa***
Uxue Apaolaza
Nerea Loiolaren gidaritzapean
**18:30 SANZ ENEA -** Tertulia
EUS

27 **Frank Delgado**
Kubako kantautorea
**20:00 MODELO ARETOA**
6€

## Urria *Octubre*

29 **Bazen behin**
Tiritirantes Circo Teatro
**16:45 MODELO ARETOA**
EUS 4€

31 **Gau Beltza**
Jalgi Dantza Taldea
**19:00 MUSIKA ESKOLATIK IRTEERA**

## Erakusketak *Exposiciones*

**Sanz Enea**
**Maria Jesús Cueto**
Urriak 5 – Azaroak 19
*5 de octubre - 19 de noviembre*
doan

## Azaroa *Noviembre*

03 **Bost minutun**
Txalo Produkzioak
**20:00 MODELO ARETOA**
EUS 8€

09/16 ***La fórmula preferida del profesor***
Yoko Ogawa
Slawka Grabowskaren gidaritzapean
**18:30 SANZ ENEA -** Tertulia
ES

10 **Olatz Zugasti**
Hitzño bat erran eta, banua berhala
**20:00 MODELO ARETOA**
10€

15 **Irakurketa txokoa**
Gurasoak ere ipuin kontalari
Miriam Mendoza
**17:30 SANZ ENEA -** Ipuin kontalaria
EUS

# Azaroa *Noviembre*

16 **Tximili Kuarteka**
**Haur irakurle taldea**
Gidaria Nerea Loiola
**17:00 SANZ ENEA**
EUS

18 **40. urteurreneko kontzertua**
**Zarauzko Musika Banda**
**eta Zarautz Abesbatza**
**19:30 ARITZBATALDE KIROLDEGIA**
doan
*gonbidapenarekin

24 **Indarkeria matxistaren kontrako bertsoak**
**20:00 MODELO ARETOA**
6€

26 **Andereño**
**Anita Maravillas**
**16:45 MODELO ARETOA**
4€

30 ***Dendaostekoak***
**Uxue Alberdi idazlearekin**
Nerea Loiolaren gidaritzapean
**18:30 SANZ ENEA -** Tertulia
EUS

# Erakusketak *Exposiciones*

**Sanz Enea**
**Nazioarteko Argazki Mostra**
Azaroak 24 – Urtarrilak 21
*24 de noviembre – 21 de enero*
doan

**Torre Luzea**
**Zarauzko Argazkizale Elkartea**
**Jon Atxutegi**
Azaroak 17 – Urtarrilak 14 / *17 de noviembre – 14 de enero*
doan

# Abendua *Diciembre*

| | | |
|---|---|---|
| 01 | **Literatura emanaldi musikatua**<br>Joseba Sarrionandia, Joxe Mari Iturralde, Iñar Sastre, Anne Etchegoyen, Yurre Ugarte<br>**20:00 MODELO ARETOA** | EUS 6€ |
| 08 | **Ez naiz inoiz Dublinen egon**<br>Tanttaka Teatroa<br>**20:00 MODELO ARETOA** | EUS 10€ |
| 13 | **Irakurketa txokoa**<br>Gurasoak ere ipuin kontalari<br>Miriam Mendoza<br>**17:30 SANZ ENEA -** Ipuin kontalaria | EUS |
| 14 | ***Kafe tristearen balada***<br>Carson McCullers<br>Nerea Loiolaren gidaritzapean<br>**18:30 SANZ ENEA -** Tertulia | EUS |
| 15 | **Arima Soul**<br>**20:00 MODELO ARETOA** | 6€ |
| 17 | **Gabon magikoak**<br>Eneko Gutiérrez, Xabi Linazasoro, Eriz Magoa, Peio Rivas<br>**16:45 MODELO ARETOA** | EUS 4€ |
| 21 | **Tximili Kuarteka**<br>Haur irakurle taldea<br>Gidaria Nerea Loiola<br>**17:00 SANZ ENEA** | EUS |
| 22 | **Olatz Salvador & Iñaki Salvador**<br>Familia artean<br>**20:00 MODELO ARETOA** | 6€ |
| 2024<br>Urtarrila<br>*Enero*<br>12 | **Gari&Maldanbera**<br>**20:00 MODELO ARETOA**<br>Sarrerak salgai abenduaren 22an (on-line eta Modelon) | 8€ |

# Amaraun. Irunez Iraun

OIHANA IGUARAN / AMAIUR LULUAGA

DANTZA BERTSOA



Irailak 22

MODELO ARETOA

20:00

EUS 6€

**Sortzaile eta gidoilariak** Oihana Iguaran eta Amaiur Luluaga / **Koreografoa** Amaiur Luluaga / **Bertsoa eta ahotsa** Oihana Iguaran

*(Ama) izan ala ez izan* erabaki beharretik abiatuko da emanaldia, eta horrek amatasunaren esperientzia batzuk erakusteko modua eskainiko digu, ezagutzen ditugun eta gustuko ditugun ereduen arteko joan-etorrian. Enpatia eta aitortza ariketa bat da amatasun mota guztiekiko, eta hausnarketa bat gizartean figura horrek betetzen duen paperarekiko.
Proiektu artistiko hau berritzailea da bertsoa eta dantza elkarrizketan jartzen dituelako, baina ez bakoitza bere aldetik, baizik eta kontakizun baten elementu banaezin bezala.

# Adarretatik Musika Jaialdia

6. EDIZIOA

MUSIKA




## Irailak 29-30, Urriak 01

doan **Antolatzailea** Enbor Akzio Kulturala Elkartea

Munoako kontzertuak Modelo Aretoan

**Irailak 29 ostirala |** *viernes 29 de septiembre*
**19:30** MUSIKA PLAZA **LA JODEDERA & RAFA VILLAFAÑA**
**22:00** MUNOA **NAKAR**
**23:15** MUNOA **LA PERRA BLANCO**

**Irailak 30 larunbata |** *sábado 30 de septiembre*
**19:30** MUSIKA PLAZA **ERROMINTXELAK**
**21:00** MUNOA **ARGIZULO TA BEÑARANKS & EIRA**
**23:15** MUNOA **AKATZ SKA BAND**

**Urriak 1 igandea |** *domingo 1 de octubre*
**13:00** MUSIKA PLAZA **DONOSTI LINDY HOP & DJ MR. PATXI "CRAZY LEGS"**
**18:00** MUNOA **ANTONIO LIZANA TRIO**

# Tu-Tum, Platz

TXALO PRODUKZIOAK
LAMANDANGA PRODUCCIONES

ANTZERKIA



Urriak 05
MODELO ARETOA
**20:00**

EUS doan

+60 adinekoen astea

**Interpretea** Jon Plazaola

Taula gainean lehen aldiz agertu zenetik 23 urte pasatu diren honetan, berriz ere Stand Up formatuko bakarrizketari heldu dio; hori bai, 23 urte zaharrago, 23 urte jakintsuago eta 23 urte kabroiago. Umorez betetako ordubete pasatxoan jakin ahal izango dugu ea urteen poderioz ardo onak bezala hobera egin duen, edo ardo merkearen moduan ozpindu egin den.

# Francisco Escudero

AKORDEOIRAKO KONPOSIZIO LEHIAKETA
CONCURSO DE COMPOSICIÓN PARA ACORDEÓN
**Sari banaketa XVI** *Entrega de premios*

MUSIKA



Urriak 06 *de octubre*
MODELO ARETOA
**20:00**

doan

**Antolatzailea /** ***Organiza*** Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkartea

Francisco Escudero Nazioarteko Konposizio Lehiaketaren amaiera ekitaldia ospatuko da bertan akordeoirako konposatutako musikaz eta Garazi Etxaburu dantzariak Francisco Escuderoren musika oinarri gisa hartuta garatutako koreografiez gozatu ahal izango da.

*Se celebrará el acto de clausura del Concurso Internacional de Composición Francisco Escudero en el que se podrá disfrutar de la música compuesta para acordeón y de las coreografías desarrolladas por la bailarina Garazi Etxaburu a partir de la música de Francisco Escudero.*

# Crisálida
CARAMUXO TEATRO

ANTZERKIA FAMILIAN



Urriak 08 *de octubre*

MODELO ARETOA

16:45

4€ +5 Urte / *años*

ipar eszena bidea

**Escena Galega, EscenAsturias, Acepae eta Eskena elkarteek sustatutako proiektua**

*Proyecto promovido por las asociaciones Escena Galega, EscenAsturias, Acepae y Eskena*

**Zuzendaria** *Dirección* Olga Margallo **/ Antzezleak** *Interpretes* Laura Sarasola, Josito Porto, Juan Rodriguez, Anahi Taraburelli

Antzezlan honek mundu globalizatu eta digitalizatu batean merkataritza tradizionalak duen garrantzia nabarmendu nahi du.

*Crisálida habla de la importancia de la existencia del comercio tradicional que sirven de unión entre los/as vecinos/as. Crisálida es un homenaje a las pequeñas historias que construyen nuestra ciudad.*

# Greenpiss
# Un desastre eco-ilógico
YLLANA

**ANTZERKIA**




Urriak **20** *de octubre*

MODELO ARETOA

**20:00**

ES 10€

**Sortzaile eta zuzendaria** *Creación y dirección* Yllana **/ Antzezleak** *Interpretes* Fidel Fernandez, Luis Cao, Juanfran Dorado, Jony Elias

Berotze globala, plastikoen gehiegizko erabilera, kontsumismo neurrigabea, milaka animalia-espezieren desagerpena eta gure espeziearen balizko desagerpena dira Yllanaren antzerki-erokeria honen abiapuntua.

*Cuatro actores se desdoblan en infinidad de personajes, desde políticos a pingüinos, para tratar un tema que está en boca de todos/as y al que Yllana ofrece una receta clara para combatirlo: humor ácido y sin barreras que no dejará a nadie indiferente.*

# Frank Delgado

KUBAKO KANTAUTOREA

MUSIKA



Urriak 27 *de octubre*

MODELO ARETOA

**20:00**

6€

**Ahotsa, gitarra, ukelelea** *Voz, guitarra, ukelele* Frank Delgado **/ Baxu elektrikoa** *bajo eléctrico* Miguel A. Valdés **/ Gitarrak, tres kubatarra** *Guitarras, tres cubano* Yibrán Rivero

Frank Delgado La Nueva Trova mugimenduko abeslari kubatarra da. Eszenatokiak partekatu ditu Silvio Rodríguez, Luis Eduardo Aute, Daniel Viglietti, Juan Carlos Baglietto, Fito Páez eta, jakina, bere belaunaldiko kide kubatarrekin.

*Frank Delgado es un cantautor cubano perteneciente al movimiento conocido como La Nueva Trova. Ha compartido escenarios con Silvio Rodríguez, Luis Eduardo Aute, Daniel Viglietti, Juan Carlos Baglietto, Fito Páez y, por supuesto, sus colegas cubanos de generación.*

# Bazen behin

TIRITIRANTES CIRCO TEATRO

ANTZERKIA FAMILIAN



Urriak 29

MODELO ARETOA

**16:45**

EUS 4€ +5 Urte

**Zuzendaria** Javier Ariza **/ Antzezle, akrobata, mago, malabaristak** Jacinto Cienfuegos eta Oscar Ortiz

Zirkuko istorio ero bat da, narratzaile batek off-eko ahotsean kontatutako ipuin modernoa. Pretiniako Erresuma inoiz izan den erresuma aspergarriena da, eta bertako zorigaitzak kontatzen dira. Zirkua, magia, zuzeneko musika eta sorpresak nahasten dira...

# Gau beltza

DANTZA



Urriak 31
MUSIKA ESKOLATIK IRTEERA
**19:00**

**Antolatzailea** Jalgi Dantza Taldea

Neguko festen zikloaren hasiera: badator negua, lurra lokartzeko garaia. Ziklo hori Santa Agedan amaitzen da, makilen hotsarekin berriro lurra esnatuz.
Gau Beltzean, hildakoak hilobietatik ateratzen dira. Hildakoek eta bizidunek elkarrekin igarotzeko gaua irudikatzen du jaiak: hori bai, hildakoek bizidunak ezagutu behar ez dituztenez, bizidunak aurpegiak estalita aterako dira kalera.
Bere jatorrizko euskal kutsua ere gorde nahi da, azken urteetan erruz zabaldu diren erdarazko «trick or treat» / «truco o trato» esapideen ordez euskaraz tradizio luzea dutenei eutsiz. Ahotan hartuko dugun esapidea hauxe izango da: *Xanduli manduli kirrikiki, eman jatekoa guri*.

# Bost minutun

TXALO PRODUKZIOAK

ANTZERKIA




Azaroak 03

MODELO ARETOA

20:00

EUS 8€

ZARAUZKO UDALA
PAREKIDETASUN DEPARTAMENTUA

**Egileak** Pablo Mir, Marcelo Giglio, Luis Penna **/ Zuzendaria** Begoña Bilbao **/ Antzezleak** Andoni Agirregomezkorta, Itziar Urretabizkaia

Nekane eta Koldo. Haurdunaldi testa. Bost minutu falta dira emaitza jakiteko. Guraso izateko prest ote daude? Guraso izan nahi al dute? Aurrerapauso bat da, edo amildegira egindako jauzi bat? Ezjakintasuna, antsietatea, beldurra, itxaropena. Nekanek 42 urte ditu, eta bere azken aukera izan daiteke ama izateko. Koldok urte batzuk gehiago dauzka, eta heldutasuna lortzeko behar duen aitzakia izan daiteke aitatasuna. Baina, hori nahi al dute?

# Olatz Zugasti

HITZÑO BAT ERRAN ETA, BANUA BERHALA

MUSIKA



Azaroak 10

MODELO ARETOA

20:00

10€

**Ahotsa, harpa eta gitarra** Olatz Zugasti **/ Gitarrak** Ander Ederra **/ Baxua eta koroak** Amaiur Cajaraville **/ Bateria, perkusioak eta koruak** Ander Zulaika **/ Haizezko tresnak, ahotsa eta teklatuak** Gratxina Lertxundi

Olatz Zugastiren ibilbideko zazpigarren lana da. Orion bizi den kantari hernaniarrak bere bideari jarraitzen dio kantu horietan zehar, hainbat estilotatik jasotako doinu, erritmo eta soinuez osatutako musika eta hitzekin. Horien bidez, ahalegin bat egiten du gure gizartearen itzal, irudipen edo gezurren gainetik begiratzeko.

# 40. Urteurren kontzertua

ZARAUZKO MUSIKA BANDA
ZARAUTZ ABESBATZA

MUSIKA



Azaroak 18

ARITZBATALDE KIROLDEGIA

**19:30**

doan *gonbidapenarekin

**Antolatzaileak** Zarauzko Musika Banda eta Zarautz Abesbatza

Zarauzko Musika Bandaren eta Zarautz Abesbatzaren 40. urteurreneko kontzertu berezi honetan, bi taldeak bakarka eta elkarrekin arituko dira. Abesbatzako bi talde gazteek ezezik, kide ohiek ere parte hartuko dute.
Guztira 200 pertsona oholtzan elkarrekin kantuan, musika eginez.

# Bertso jaialdia

INDARKERIA MATXISTAREN
KONTRAKO BERTSOAK

BERTSOA



Azaroak 24
MODELO ARETOA
**20:00**

6€

ZARAUZKO UDALA
PAREKIDETASUN DEPARTAMENTUA

Indarkeria matxistaren kontrako bertso saioa antolatu da, bertan lau bertsolari, 2 musikari eta gai-jartzaile bat izango dira. Azaroaren 25, Emakumeenganako indarkeriaren aurkako egunaren inguruan antolatutako jarduera izango da.

# Andereño

ANITA MARAVILLAS

ANTZERKIA FAMILIAN



Azaroak 26 *de noviembre*

MODELO ARETOA

**16:45**

4€ +6 Urte / *Años*

**Jatorrizko ideia** *Idea original* Miren Larrea **/ Zuzendaria** *Dirección* Iván Alonso **/ Antzezleak** *Interpretes* Miren Larrea, Maren Basterretxea, Valentina Raposo

Andereñoaren istorioa aske eta zoriontsu izateko ahalegin ero eta ederra da. Istorio honen bidez, errepublikako andereño adoretsu haien hitzek bidaiatu egiten dute, eta belarrira xuxurlatzen digute aske izateko lehen baldintza horretan saiatzea dela.

*La historia de Andereñoa es un intento loco y hermoso de ser libre y feliz. A través de esta historia viajan las palabras de aquellas valientes maestras de la republica y nos susurran al oido la primera condición para ser libres es intentarlo.*

# Literatura emanaldi musikatua

LITERATURA MUSIKA




## Abenduak 01

MODELO ARETOA

**20:00**

EUS 6€

**Idazleak** Joseba Sarrionandia eta Joxe Mari Iturralde **/ Musikaria** Iñar Sastre **/ Abeslaria** Anne Etchegoyen **/ Aurkezlea** Yurre Ugarte

Euskal literatura eta musika uztartzeko parada izango dute Euskal Herrian ezagunak diren hainbat artistak. Joxe Mari Iturralde eta Joseba Sarrionandia arlo literarioaz arduratuko dira, Iñar Sastre eta Anne Etchegoyen arlo musikalaz, eta Yurre Ugarte kazetari eta idazlea koordinazio-lanetan arituko da.
Emanaldian, euskal literatura izango da hizpide, eta Xabier Lizardi poetaren hitzak ere gogora ekarriko dira besteak beste.

# Ez naiz inoiz Dublinen egon

TANTTAKA TEATROA

ANTZERKIA



Abenduak 08

MODELO ARETOA

20:00

EUS 10€

**Zuzendaria** Mireia Gabilondo **/ Antzezleak** Iñigo Aranburu, Iñigo Azpitarte, Mireia Gabilondo eta Aitziber Garmendia

Komedia. Amesti familia Gabon gaua ospatzeko elkartu da, baina aurtengoa berezia da. Elena, hiru urtez ikusi ez duten alaba, Londresetik itzuli da. Baina ez dator bakarrik, Cindyrekin dator, bere neska-lagun irlandarrarekin. Inork ez du espero Cindy pertsonaia ikusezin bat izatea, familiaren oreka hankaz gora jarriko duen Elenaren fantasia bat. Elkar onartzeko zailtasunak izan arren, denak gauza berdinen bila dabiltzala ikusiko dugu; bizitzen lagunduko dien ilusio baten bila.

# Arima Soul

MUSIKA



Abenduak 15
MODELO ARETOA
**20:00**

6€

**Ahotsa** Lidia Insausti **/ Baxua** Mikel Makala **/ Teklatuak** Paul San Martin **/ Bateria** Gorka Gaztanbide

Arima —*soul* ingelesez— egiten dute: Soul, Rhythm & Blues, Funk, 60's eta 70's hamarkadetako Jazz-Groovea, baina estilo horien korronte garaikideetan begirada jarrita, Neo Soulean, alegia.
Zuzeneko emanaldietan, euskaraz abestutako pieza propioak jotzeaz gain, soularen figura adierazgarrien bertsioak interpretatzen dituzte; besteren artean, aipatzekoak Etta James, Curtis Mayfield, Marie "Queenie" Lyons, Gil Scott-Heron...

# Gabon magikoak

MAGIA




Abenduak 17
MODELO ARETOA
16:45

EUS 4€

**Magoak** Eneko Gutiérrez, Peio Rivas, Eriz Magoa eta Xabi Magoa

Gabon Magikoak mago ezberdinen fusioaren bidez sortutako ekitaldia da, non hari bezala aurkezle bat egongo den. Formatu oso ohikoa da magia munduaren barnean, eta, horrela, ikuskizunak dinamismo askoz handiagoa lortzen du, mago bakoitzak joko eta magia mota desberdinak antzeztuko baitituzte.

Ikuskizuna publiko familiarrari gidatuta dago, non etxeko txikienetik handienera momentu zirraragarria eta dibertigarria pasako duten.

# Olatz Salvador & Iñaki Salvador

FAMILIA ARTEAN

MUSIKA



## Abenduak 22

MODELO ARETOA

**20:00**

6€

**Ahotsa eta gitarra** Olatz Salvador **/ Pianoa** Iñaki Salvador

Proposamen berri honetan Olatzen errepertorioa bizkarrezurra izango den kontzertu batera eramango gaitu duoak. Nahiz eta formatua nabarmen intimoa izan, eskatzen duenean indarra eta sendotasuna ere izango ditu, bi artistek elkarrekin esploratuko dute euren unibertso musikalaren fusioa.

Familiakoak izanik, topaketa berezia izango da, baina hortaz haratago, belaunaldi arteko hurbilketa musikal eta artistiko interesgarria izango da. Xalotasunetik eta xumetasunetik abiaturik funtsezkoa den horretan sakondu nahi duen lana, soila eta emozioz beterikoa.

# Haur/gazte literatura

LITERATURA



TXIMILI KUARTEKA HAUR IRAKURLE TALDEA

Gidaria Nerea Loiola

HAUR LIBURUTEGIA

BERRIA

**17:00**

EUS doan 10-12 Urte

Urriak 19 / Azaroak 16 / Abenduak 21

---

GURASOAK ERE IPUIN KONTALARI

Miriam Mendozaren eskutik

HAUR LIBURUTEGIA

**17:30**

EUS doan 3-6 Urte

Urriak 18 / Azaroak 15 / Abenduak 13

# Solasaldia gazteleraz

SLAWKA GRABOWSKAREN GIDARITZAPEAN

*DIRIGIDAS POR SLAWKA GRABOWSKA*

**LITERATURA**



SANZ ENEA LIBURUTEGIA

18:30 ES doan

Irailak 14/21 *de septiembre*

**La república era esto** / Alaa al Aswani

Urriak 5/19 *de octubre*

**La hija única** / Guadalupe Nettel

Azaroak 9/16 *de noviembre*

**La fórmula preferida del profesor** / Yoko Ogawa

# Solasaldia euskaraz

NEREA LOIOLAREN GIDARITZAPEAN

LITERATURA



SANZ ENEA LIBURUTEGIA

18:30 EUS doan

Irailak 28

**Ibaiertzeko ipuina** / Oihana Amantegi

Urriak 26

**Bihurguneko nasa** / Uxue Apaolaza

Azaroak 30

**Dendaostekoak** / Uxue Alberdi (idazlea etorriko da)

Abenduak 14

**Kafe tristearen balada** / Carson McCullers

# Erakusketak

ERAKUSKETA



María Jesús Cueto

## 18:00 / 20:00

**EGUNERO / *TODOS LOS DÍAS***
Sarrera doan / *Entrada libre*

## SANZ ENEA

Irailak 24 arte / *hasta el 24 de septiembre*
**Iñigo Ormazabal**

Urriak 5 - Azaroak 19 / *5 de octubre - 19 de noviembre*
**María Jesús Cueto**

Azaroak 24 - Urtarrilak 21 / 24 de noviembre - 21 de enero
**Nazioarteko Argazki Mostra**

# Erakusketak



Iñigo Ormazabal

## 18:00 / 20:00

**EGUNERO / *TODOS LOS DÍAS***
Sarrera doan / *Entrada libre*

## TORRE LUZEA

Irailak 17 arte / *hasta el 17 de septiembre*
**Iñigo Ormazabal** Marinak

Irailak 28 – Azaroak 12 / *28 de septiembre - 12 de noviembre*
**Ricar Iriarte**

Azaroak 17 - Urtarrilak 14 / *17 de noviembre - hasta 14 de enero*
**Jon Atxutegi**
Zarauzko Argazkizale Elkartea

# Zinema

IKUSIKO DITUGUNAK

ZINEMA
























## **Sarrerak** Entradas

Modeloko ekitaldietarako sarrerak **tickets.kutxabank.es** plataformaren bidez edo Modeloko leihatilan eros daitezke.

*Para las actuaciones de Modelo Aretoa, las entradas se podrán comprar mediante la plataforma **tickets.kutxabank.es** o en la ventanilla de Modelo.*

## **Harremanetarako** Contacto

**kultura@zarautz.eus**
**Tel. 943 00 51 20**

### **Helbideak** / *Direcciones*

**MODELO ARETOA**
Zigordia kalea, 1

**SANZ ENEA**
Nafarroa kalea, 22

**TORRE LUZEA**
Kale Nagusia, 28

Antolatzaileak / *Organizan*

ZARAUZKO UDALA

ZARAUTZ 2030

**KULTURA**ZARAUTZ

Laguntzaileak / *Colaboradores*

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa